

Sustapen  
Saila  
2023

# 2022ko BERTSO SAIO ETA PLAZAKO DATUAK



**bertsozale**  
elkartea

## Edukia

<b>SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>PLAZAKO SAIOEN IRAKURKETA 2022</b> .....	<b>2</b>
Plaza motak banaka: .....	3
Bertsolarien jarduna: .....	5
Generoa: .....	7
Belaunaldiartekotasuna plazan: .....	9
Lurraldetasuna plazetan: .....	11
Saioen banaketa bertsolarietan: .....	12
Gazteak plazan: .....	13
<b>LANKU:</b> .....	<b>14</b>

## SARRERA

Bertsolaritzan askotariko saio motak aurkitu ditzakegu. Gure gizartean oso errotuta dagoen kultur adierazpidea da eta edozein herritan aurkituko ditugu bertsolariz osatutako edo bertsolariak parte diren ekitaldiak. Jai eta festa giroan ere oso presente dago bertsolaritza betidanik. Herri gutxi izango da Euskal herrian urte osoan zehar bertso saio edo bertsogintzak presentzia duen ekintzarik ez duenik. Baina bestelako kultur espazioak ere betetzen ditu, izan areto, zinema edo kultur-etxeetako gelak besteak beste.


Erronka askori aurre egin behar izan dio bertsolaritzak bere historian zehar, eta beti aurkitu izan du egoera berrietara moldatzeko modua. Berritzeko eta moldatzeko gaitasuna bere egin ditu bertsolaritzak, eta beti mugimenduan dagoen gizarte baten parte izanik eraldatzen doa etengabe.

Covid-19ak, eta ondorioz ezarritako neurriek lurrikara eragin zuten bertsolaritzaren ekosistema osoan, baina guretzat ezinbestekoak diren bertso-eskola eta bertsozaleei esker mantendu ditugu plaza asko.

Plaza azterketak ekosistema guzti honi jarraipena egitea du helburu. Xenpelar Dokumentazio Zentroak gidatutako bilketa sistemak emandako datuei esker aztertu ahal izan ditugu ondorengo datu hauek.

## PLAZAKO SAIOEN IRAKURKETA 2022

- Jaialdiak, lagun-arteak, librekoak eta bat-bateko bereziak-



Urtea	Plazako saio kopurua
2015	1201
2019	1130
2020	496
2021	694
2022	1069

2022aren lehen bi hilabeteak pandemiaren ondorioz ezarritako neurrien kontestuan igaro genituen. Gabonetako neurrien estutzeak, bestela ere saio gutxi antolatzen diren garaia makaldu zuten. Zorionez, Xilaba, Nafarroako eta Bizkaiko txapelketan igaro berritan saioak antolatzeko lanari gogotsu heldu zitzaion.



Udaberriarekin batera etorri zen saioen loratzea. Oso gutxitan ikusi ditugu halako kopuruak. Martxotik maiatzera bitarte batez ere saio asko antolatu ziren: 300 saio (2019an 248 izan ziren).




Udatik urte amaiera bitarte plaza normaltasunez joan zela esan genezake. Azaroko datuak Euskaraldiak desitxuratzen ditu. 2019an egin zen eskaintza arrakastatsua kopuru altuak utzi zizkigun, aurtengoan ez da

halakorik gertatu ordea. Gainera, Bertsolari Txapelketa Nagusia ere jokatu da garai horretan, beraz ez da harrizkoa plaza gutxiago antolatu izana.

Plazako saioen kategoriak 4 mota biltzen ditu: jaialdiak, lagun-arteak (bertso bazkari edo afariak), libreko saioak eta bat-bateko bereziak (musikatuak, tematikoak, tramak, ...).

**Plaza motak banaka:**






Urtea	2015	2017	2019	2022
Jaialdia	266 saio	229 saio	272 saio	346 saio
Lagun- artekoa	461 saio	345 saio	336 saio	316 saio
Librekoa	360 saio	427 saio	419 saio	306 saio
Bat- bateko berezia	114 saio	93 saio	101 saio	101 saio
<b>GUZTIRA</b>	<b>1201 saio</b>	<b>1094 saio</b>	<b>1128 saio</b>	<b>1069 saio</b>


### Bertsolarien jarduna:

Bertso saio batean bertsolari bat baino gehiagok kantatzen dute normalean. Saio mota bakoitzaren kopuruaren arabera asko aldatu daiteke urtean zehar bertsolariek egiten duten jardun bolumena. Jaialdi batean 4-6 bertsolarik kantatzen dute batz bestea, eta bertso afarietan aldiz 2 bertsolarik. Hona 2022an bertsolarien parte-hartzeak izandako bilakaera:




Urtea	Parte-hartze kopuru totala	Parte-hartze kopurua plazan
<b>2019</b>	<b>4.365</b>	<b>3.106</b>
2020	2.851	2.006
2021	3.431	2.450
<b>2022</b>	<b>4.671</b>	<b>3.229</b>

Jaialdien eta bat-bateko berezien ugaritzeak bertsolarien parte-hartze kopuruak gora egitea ekarri du. Plazaz gain, bertsolaritzarekin zerikusia duten saio guztiak kontutan hartu ezker, nabarmen handitzen da kopurua. 2019arekin alderatuz 306 parte-hartze gehiago izan dira 2022an.



Saio mota hauetan banatzen da bertsolarien parte-hartzea:



\*Bestelakoen barruan sartzen dira: hitzaldiak, ekitaldipekoak, eskekoak, didaktikoak eta prentsaurrekoak.

\*Sariketetan sartzen dira: txapelketak, Eskolarteak eta sariketak.

\*Lagun-arteetan sartzen dira: bertso bazkariak eta bertso afariak.


\*Bestelako saio berezietan sartzen dira: emanaldi bereziak, haurren ikuskizunak, ...

\*Bat-bateko berezietan sartzen dira: musikatuak, tematikoak, literarioak, ...

### Generoa:

Pandemia garaia parekidetasunerako azken urteetako joera indartu zuen nabarmen. Aldaketa motelago ematen ari zen, saio mota batzuk ez ziren antolatu 2020 eta 2021 urteetan, eta horrek orekarako joera handitu zuen. Plaza ohiko jardunera itzultzen ari dela esan genezake eta horrek datu hauetan eragina duen edo ez ikusteko dago. Hauek dira 2022 urtera arteko datuak.

Kontutan hartu **datu hauek saio mota guztietan oinarritzen direla**, ez plazako saioetan bakarrik eta parte-hartze bakoitzaren genero banaketaz ari garela.



Hona urte bakoitzean, saioen bat (edozein motakoa) egin duten bertsolari gizonetako eta bertsolari emakumezko kopuruak:

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
2009	310	69
2015	401	90
2019	377	124
2020	347	150
2021	295	149
2022	339	150




Hona saio mota bakoitzeko portzentaiak:

<b>2019</b>		
Bertso saio mota	Gizona	Emakumea
Bat-bateko bertso saio berezia	% 39,7	% 60,3
Bestelako saio berezia	% 55	% 45
Ekitaldipekoa	% 72,7	% 27,3
Eskolartekoa	% 43,2	% 56,8
Jaialdia	% 60	% 40
Lagun-artekoa	% 70,5	% 29,5
Plaza librea	% 66,7	% 33,3
Sariketa	% 65,3	% 34,7
Txapelketa	% 77,2	% 22,8
<b>2019 saio mota guztiak</b>	<b>% 63,5</b>	<b>% 36,5</b>

<b>2021</b>		
Bertso saio mota	Gizona	Emakumea
Bat-bateko bertso saio berezia	% 29,5	% 70,5
Bestelako saio berezia	% 59,1	% 40,9
Ekitaldipekoa	% 56,6	% 43,4
Eskolartekoa	% 40,0	% 60,0
Haurrentzako ikuskizuna	% 53,8	% 46,2
Jaialdia	% 51,5	% 48,5
Lagun-artekoa	% 65,9	% 34,1
Plaza librea	% 57,1	% 42,9
Sariketa	% 50,4	% 49,6
Txapelketa	% 73,4	% 26,6
<b>2021 saio mota guztiak</b>	<b>%53,5</b>	<b>%46,5</b>

<b>2022</b>		
Bertso saio mota	Gizona	Emakumea
Bat-bateko bertso saio berezia	% 29,4	% 70,6
Bestelako saio berezia	% 40,7	% 59,3
Ekitaldipekoa	% 50,6	% 49,4
Eskolartekoa	% 46,6	% 53,4
Haurrentzako ikuskizuna	% 49,2	% 50,8
Jaialdia	% 53,4	% 46,6
Lagun-artekoa	% 62,8	% 37,2
Plaza librea	% 58,3	% 41,7
Sariketa	% 54,9	% 45,1
Txapelketa	% 66,3	% 33,8
<b>2022 saio mota guztiak</b>	<b>% 53,2</b>	<b>% 46,8</b>







Genero berdineko bertsolariek elkarrekin zenbat saiotan abesten duten aztertzea ere interesgarria da. Lehen aipatu bezala, saio mota batzuetan aldea handia baita. Alde handiena bertso bazkari eta afarietan dago. Hala ere pixkana orekatzen doan datu bat da hau ere.

Hona 2019 eta 2022eko datuak alderatuta:

<b>Bertso-bazkari eta afariak</b>				
	2019		2022	
	Ber. kopurua	Saioen %	Ber. kopurua	Saioen %
Gizonezkoak bakarrik	145	% 45,5	116	35,5 %
Emakumezkoak bakarrik	19	% 5,96	38	11,5 %
Mixtoak	155	% 48,59	173	53 %

### Belaunaldiartekotasuna plazan:

Plazan adin guztietako bertsolariek aritzen dira urte osoan zehar. Denak behar ditu bertsolaritzak eta ondorengo grafikek honen inguruko informazio asko ematen dute. Ikusi dezagun azken urteetan zer nolako bilakaera izan duen adinak plazan:




2022 plazako bertso saioak								
Adin tart.	Denera		Gizonak			Emakumeak		
	Bertsolari kop.	Saioak tot.	Kop	Saioak	Ehunekoa	Kop	Saioak	Ehunekoa
50+	38	308	38	308	% 100	0	0	% 0
40-49	70	756	57	463	% 81,5	13	293	% 18,5
30-39	66	928	48	381	% 72,5	18	547	% 27,5
20-29	114	986	73	470	% 64	41	519	% 36
20-	41	185	19	75	% 45,5	22	110	% 54,5

*\*Biografian jaiotza data zehaztu gabeko 21 bertsolari daude.*

### Lurraldetasuna plazetan:


Euskal Herri osoan zehar antolatzen dira mota guztietako saioak. Lekuan lekuko errealitateari erantzunez, bertsolari eta saio kopuruak aldatzen joaten dira. Hona 2022an antolatu diren 1069 saioak nola banatu diren lurraldez lurralde, eta nolako bilakaera izan duten azken urteetan.

Ondorengo grafikan, **plazetan kantatu duten bertsolarien lurraldetasunaren banaketa** ikusiko dugu. Kontutuan izan parte-hartzeaz ari garela.



\*Adibidez: 2022an plazan egon dien parte-hartze guztien %41-a bertsolari gipuzkoarrak izan dira.

Ondorengo irudian 2022an antolatu diren **saioak zein herrialdeetan antolatu diren** agertzen da:



**350 bertsolarik egin dute saioen bat 2022ean plazan.** Horrek bertsolari zerrenda luzea dugula adierazten du. Bertsolari multzo hau lurraldetasun ikuspegitik aztertzen badugu, ondorengo da emaitza:

Herrialdea	Bertsolari kopurua	%	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gipuzkoa	142 bertsolari	% 39,8	105	37
Bizkaia	104 bertsolari	% 29,8	72	32
Nafarroa	36 bertsolari	% 10,6	28	8
Araba	35 bertsolari	% 10	26	9
Iparraldea	33 bertsolari	% 9,7	20	13
DENERA	350 bertsolari	% 100	251	99

#### Saioen banaketa bertsolarietan:

1069 plazako saio antolatu dira 2022an, eta saio hauetan 329 bertsolarik kantatu dute; denera 3229 parte-hartze eginda. Ondorengo taulan, saio kopuru hau bertsolarien artean nola banatzen den agertzen da.


2022				
Bertsolari kop.	Bertsolarien %	Plaza kop.	Plazaren %	Ezaugarriak
<b>329</b>	<b>% 100</b>	<b>3229</b>	<b>% 100</b>	
150 bertsolarik	%45,6	2839	% 87,9	4 saiotik gora egin dituzte
50 bertsolarik	% 15,2	2025	% 62,7	16 saiotik gora egin dituzte
30 bertsolarik	% 9,1	1582	% 49	28 saiotik gora egin dituzte
10 bertsolarik	% 3	826	% 25,6	Bertsolari guztiek 56 saiotik gora egin dituzte

Datu hauek ikusita, hona beste ondorio batzuk:


- Bertsolarien %26,7ak (88), saio bakarrean kantatu du 2022an.
- Bertsolarien %50ak (165), 3 saio baina gutxiagotan kantatu du 2022an.
- Bertsolarien %78ak (259), 10 saio baina gutxiagotan kantatu du 2022an.

### Gazteak plazan:

Urtero bertsolari gazte berriek ematen dute plazarako saltoa. 2022an esaterako, 25 urtez azpiko 115 bertsolarik egin dute saioen bat plazan. Etorkizunean denak ez dira ariko plazan modu erregularrean, baina ikusi dezagun nolakoa den bertsolari hauen profila.



### Bertsolari gazteek egindako plaza kopuruen arabera banaketan




Datu deigarriena bertsolari Nafarrena da. Bertsolari kopuruz ehuneko txikiena izanagatik, proportzioan beste lurraldetako gazteek baina saio gehiagotan kantatu dute.

Generoari dagokionez berriz, horrela banatzen dira bertsolariak eta saio kopuruak:

	Bertsolari kopurua	Saio kopurua
Emakumezkoak	50	319
Gizonezkoak	66	351

## Lanku:

Lankuren jarduna plazan nabarmen handitu da azken urteetan. Lan onaren ondorioz lortutako erreferentzialtasuna nabaria da eta antolatzaileen konfiantza goraka doa. Ondorengo grafiketan Lankuk bertso saioen bitartekaritzan duen dinamika ikusiko dugu datuen bidez. Lehen grafika honetan bertso saio mota guztien ardatza eta Lankurena alderatzen dira.




Azken 7 urteetako datuak ageri dira ondorengo taulan. Bi ondorio nagusi atera ditzakegu datu hauetatik. Batetik urtetik urtera Lanku bidez kudeatzen diren saioak goraka doazela, eta bestea, pandemia garaian antolatzaileek Lankurengan jarritako konfiantza.

Bertso-saioen kuota			
Urtea	Saioak	Lanku	% kuota
2016	1876	472	25
2017	1749	423	24
2018	1675	465	28
2019	1693	459	27
2020	1002	369	37
2021	1227	507	41
2022	1696	596	35

Lankuk mota askotako saioak kudeatzen ditu. Bitartekari den 493 saio horiek, honela banatzen dira:

2022an kudeatutako saio motak		
Saio mota	Kop.	% kuota
Bat-bateko bertso saio berezia	43	7,2
Bestelako saio berezia	92	15,4
Didaktikoa	26	4,4
Ekitaldipekoa	35	5,9
Eskekoa	6	1,0
Haurrentzako ikuskizuna	51	8,6
Hitzaldia	1	0,2
Jaialdia	153	25,7
Lagun-artekoa	72	12,1
Plaza librea	115	19,3
Sariketa	2	0,3
Txapelketa	0	0,0
	596	

Urte osora ekarrita, honela banatzen da saioen karga:



Eta lurraldetasunari begira honela:

2022an kudeatutako saioak lurraldeka		
Lurraldea	Kop.	% kuota
Araba	70	12,2
Bizkaia	175	30,4
Gipuzkoa	253	44,0
Nafarroa	74	12,9
Lapurdi	1	0,2
Nafarroa beherea	2	0,3
Zuberoa	0	0,0
Online	0	0,0

*\*Lankuk bertsolaritzarekin zer ikusirik ez duten bestelako saio mota batzuk ere kudeatzen ditu, baina datu horiek ez ditugu bildu taula hauetan.*

